



KANTOK



Egunero kantu bat asmatzeko 'Badok'-en jolasa
Klasikoak, berriak...



BADOK

aldi hau
kontatzeko
berria

berria

LURRALDEAK

| ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | IPAR EUSKAL HERRIA | NAFARROA |

SAGARDOTEGI DENBORALDIA

Arduran dago gakoa

Larunbatero Hernanira iristen diren sagardozaleek eragin nabarmena dute herriko giroan. Egungo parranda eredua ezbaian jartzen dute hernaniar askok, eta kanpotik datozeinei arduratsuak izateko eskatzen diete.



Pertsona bat, basoa sagardoz betetzen. 2023ko urtarrilean. Astigarragan. ION URBEL/FOKU

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena



Urtarrilaren 16an hasi zen txotx garaia, eta pixkanaka iristen ari da jende uholdea Hernanira eta inguruko herrietara. Azken urteetan larunbat eguerdiek hartu dute ospea, eta bazkari baten bueltan elkartzea izaten da gehienen nahia. Horrek, ezinbestean, eragin nabarmena du bazkalosteko giroan, arratsaldeko 19:00etan jai giro betean murgiltzen baita Hernaniko parte zaharra, eta horrek zeharo aldatzen du bertakoen ohiko bizi erritmoa.

Aurtengo txotx garaiak «kezka puntu bat» sortzen dio Xabier Lertxundi Hernaniko alkateari: «Oraindik jasangarria da, baina lehenengo asteburutik nabaritu dugu gorakada. Iaz jende asko etorri zen, eta berriz hori gertatzeak kezkatzen nau». Gaineratu du iaz 87 autobus zituztela martxoko larunbat batean. «Horri gehitu behar zaio autobus antolatuetan ez datorren jendea. Milaka pertsona dira guztira», nabarmendu du Lertxundik.

Pertsona horiek guztiak Hernaniko tabernetara joan ohi dira bazkalostean. Axel Tranche (Hernani, 1989) Ekos tabernako nagusiak, ordutegian ez ezik, sortzen den giroan nabaritzen du aldaketa: «Ordu batetik bestera aldatzen da, dagoen jende motaren arabera. Egia da ohiko larunbatekin alderatuta jendea mozkorrago egoten dela, baina gehienak ondo portatzen dira». Lertxundi bat dator horrekin: ez du «orokortu nahi». Hala ere, «elkarbizitzaren kontrako jokabideak» izaten dituztenak «nahi baino gehiago» direla dio.

Trancheren tabernan ere horixe izan da joera; iskanbila handiak baretu diren modura, ohikoagoak dira bertakoenganako errespetu faltak: «Larunbat normaletan ehunetik bi izaten badira modu egokian ez daudenak, txotx garaian hogeia dira. Azkenean, ezagutzen ez duten herri batean batzuei gutxiago inporta zaie nola tratatzen duten ondokoa».

Errespetu falta horiek tarteko txotx garaiko parrandaz nazkatu diren herritarrak ere badaude. Hori da Uxue Yusteren eta Amaiur Velezen kasua. Hernaniko parranda «oso masiboa eta maskulinoa» dela diote. «Jende askok ez du ulertzen

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**



«Oraindik jasangarria da, baina lehenengo asteburutik nabaritu dugu gorakada. Iaz jende asko etorri zen, eta hori berriz gertatzeak kezkatzen nau». **XABIER LERTXUNDI**
Hernaniko alkatea

«Herriatik kanporatuta» sentitu izan dira Yuste eta Velez, beti egoten diren lekuetatik «ateratzera behartuak». Horregatik, egoera hori aldatzeko, *Hernaniko Ostiral Alternatiboak* dinamika sortu dute. «Txotx garaiko parranda ereduan gustura ez daudenei alternatiba bat eskaini nahi genien, eta horregatik sortu genuen taldea. Bi ostiraletik behin antolatuko ditugu jarduerak». Esaterako, jolasak prestatu zituzten orain dela bi aste, eta Aiert Alberdiren kontzertua ere izan zen ostiralean: «Askotariko aisialdi ereduak probatzea da asmoa, herriko edozein pertsona gustura egon dadin».

Lertxundik gertutik erreparatu dio dinamikaren sorrerari, eta ondo ulertzen du zergatia. «Larunbatetan, kanpotik parrandara datorren jendeari zerbitzua emateko gune bat bihurtzen da parte zaharra. Orduan, herriko ohiko jarduerak egin nahi dituenak desplazatuta sentitzen da». Hain zuzen ere, arazo horri konponbidea emateko, zenbait kultur jarduera antolatzeko asmoa du Hernaniko Udalak. «Probak egin eta datuak bildu» nahi ditu horretarako, ondoren «aurrera begirako erabakiak hartzeko». Lertxundik dio «txotx ereduaren aldaketa» egitea dela asmoa: «Luzera begirako kontua da, baina eredu aldaketa gauzatzeko oraingo arazoei heldu behar diegu».

Eredua aldatzearen zailtasunak

Txotx eredia eraldatzeko asmoa adierazi du behin baino gehiagotan Hernaniko Udalak, eta larunbatetako masifikazioa apaltzearekin lotuta dago Lertxundik duen ideia. Egindako ikerketetatik ondorioztatu dute Hernanin ez dagoela «segurtasun arazorik»; bai, ordea, «elkarbizitzarekin lotutako arazoak». Beraz, hortik abiatzea dute helburu. «Gizalege kontua da, parranda ereduarekin zerikusia izan dezakeena», dio alkateak. «Horri gehitzen zaio jende kopurua handia dela, eta horrela zaila da eredu jasangarria izatea». Yustek ere argi dauka gizalegea dela garrantzitsua. Haina «zaila» iruditzen zaio mezua kanpotik

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**



tabernariak, merkatariak eta bizilagunak. Elkarlanean gauzatu nahi dituzte aldaketak, eta Lertxundik argi du zer lortu nahi duen Hernaniko Udalak. «Ulertarazi nahi dugu sagardoa ez dela bakarrik lau hilabeteko kontua; urte guztian gozatu daiteke, eta nahiko genuke etortzen diren horiek sagarraren eta sagardoaren kultura ezagutzea. Parrandako plana baino harago joatea da helburua». Sagardoaren Mahaian sintonia ona dagoela nabarmentzen dute, nahiz eta bakoitzak bere erara bizi duen egoera.

«Ideala izango litzateke pertsona bakoitzak jakitea nora datorren eta zertara; kontzientzia pixka bat izatea, alegia».
UXUE YUSTE Hernaniko bizilaguna

Guztien arteko bizikidetza hobetzeko, garbiketa eta udaltzainen zerbitzua areagotzeaz gain, indarkeria matxistaren eta arrazistaren aurkako protokoloak jarri ditu martxan Hernaniko Udalak. Gainera, eragileekin adostutako zenbait neurri ere jarri ditu abian. Horien artean esanguratsuena edalontzi berrerabilgarriak jartzea izan dela azaldu du Lertxundik: «Aspaldiko ideia da hori. Bere garaian kristalezko basoetan ez zerbitzatzeko eskatu genien tabernariei, eta bat egin zuten proposamenarekin. Oraingoan ere harrera oso ona izan du, haiek ere problematikaz oso kontziente baitira».

Hondakin kopurua murriztea da edalontzi berrerabilgarriak jartzearen helburu nagusia, eta Hernaniko hamabost tabernatan baino gehiagotan topatu ahal izango dira edalontzi berrerabilgarriak. Tranche «gustura» dago hartutako erabakiarekin. «Hasieratik nengoen alde. Azkenean, gu ohituta gaude kristalezko basoak erabili eta une oro garbitzera. Honek lan gehixeago ematen du, baina merezi du».

Tabernentzat, beharrezkoa

Txotx garaian Hernanira iristen den pertsona kopuruak badu bestelako ondorio bat. Trancherentzat, urte bukaerara iristeko ezinbesteko sostengua da sagardotegi garaia: «Gaur egun asko apaldu da gaueko giroa. Ez bagenu sagardotegi garairik ez dakit Hernanin zenbat taberna egongo liratekeen irekita»

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena



ostalariek aurrera egiteko, eta guk argi daukagu gure ostalaritza eta tabernak mantendu nahi ditugula. Oreka bilatu nahi dugu, baina badakigu zaila dela».

Trancheri «astuna eta deserosoa» egin izan zaio txotx garaian lan egitea, baina argi dauka bere «lanaren parte» dela: «Ohiko asteburuekin konparatuta, desatseginagoa da giroa, baina ez naiz nire lanaz kexatuko, guretzat ezinbestekoa baita urteko balantzea positiboa izateko». Hala ere, ondo daki herriko jendearen pentsaera zergatik izan daitekeen bestelakoa. «Ulertzen dut herriko jendea kexatzea, etortzen diren batzuen jarrerak ez baitira onargarriak».

Ondorio modura, gizalegean eta bakoitzaren arduran jarri dute azpimarra denek. «Errespetua eskatzen dugu, gutxieneko batzuk betetzea. Logikoa dirudi, baina ezin da plazaren erdian pixa egiten hasi. Arduraz jokatu behar du bakoitzak, kontziente izanda zenbat jende datorren eta zein den horren eragina», dio Yustek. Lertxundik ere antzeko mezua helarazi nahi izan die Hernanira joatekoak direnei: «Herri honek bere dinamika dauka, eta horretara egokitu behar dute. Parranda egin bai, noski, inork ez du parrandaren aurkako ezer, baina jakinda herri batean daudela».

GAIAK

Bizimoduak

Jaiak

Gizarte gaiak

Lertxundi, Xabier

Gipuzkoa

Euskal Herria

Bi hamarraldi. Milaka aldi.

Hogei urtez, milaka euskaldunen babesari esker, aldian aldiko kazetaritza independente eta profesionala egin ahal izan dugu. Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**



Iruzkin bat egin

ORDENATU DATA



EUSKADIKO ETA NAFARROAKO
ZINEMA-ARETOETAN

INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

Egin zure ekarpena





Sanchezek berretsi du trafiko eskumena Nafarroaren esku uzteko moduak bilatuko dituela

AITOR BIAIN



Alba Garcia: «Ziklo politikoaren aldaketarekin, espazioa eraberritzeko beharra ikusi dugu»

IOSU ALBERDI



Auzo guztietako haur eskoletan murgiltze eredua ezar dezala eskatu dio euskalgintzak Iruñeko Udalari

ION ORZAIZ

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**



USURBILGO LANBIDE ESKOLAko
ATEAK ZABALIK

goi maila eta espezializazioa
martxoak 5 17:00tan
asteartea

erdi maila
martxoak 7 17:00tan
osteguna

EZAGUTU
GURE IKASTETXEA!

IZENA EMAN

 tel. 943 36 46 00
WWW.LHUSURBIL.EUS

OTSAILAK 25, igandea, 16:00etan

**Errenteriako
ANE SANTESTEBAN
Txirrindulari saria**

Errepideko emakumezko kadete eta junior mailako lasterketa

 Babeslea
berria

NABARMENDUAK

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure aldia. 2025erako 3.000 babesle berri behar ditugu iragana eta geroa orainaldian kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**



Karmele Jaio:
«Maitasuna benetan
zer den galdezka
jarri nau liburu hau
idazteak»

AINHOA SARASOLA

Lazaro Milikua:
«Idazkari modura,
nire lehen tramitea
izan zen lagun bat
soldaduskatik
libratzea»

AMAIA IGARTUA ARISTONDO

**2023aren azterketa
feminismoari
begira: gazia bezain
gozoa izan da**

IRATI URDALLETA LETE

Lo
da
MIKE

Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia

IKUSI >

Arratsaldekoa

IKUSI >

Goizekoa

IKUSI >

Badok

IKUSI >

Astekaria

IKUSI >

Kinka

IKUSI >

Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.



Zure posta elektronikoa

Harpidetu

aldi hau
kontatzeko

Orain, aldi berria dator. Zure
aldia. 2025erako 3.000
babesle berri behar ditugu
iragana eta geroa orainaldian
kontatzeko.

**Egin zure
ekarpena**

